

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Merkatuaren segmentazioaren bidez, bezero potentzialak hainbat taldetan banatu daitezke, eta horiei esker, enpresek mezu pertsonalizatuak bidal diezazkiekete entzuleei zuzenean.

Hau azalduz, guk sortu dugun escape-room hezitzailea batez ere 4-16 urte bitarteko umeentzat bideratuta dago, hezkuntza eremuetan Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza mailetarako. Etapa horien artean kontuan hartzen dugu ikastetxe gehienek dauzkaten kasuistika ezberdinak, beraz, ume guztiei begira, egokitzapenak egin ahal izateko eskaeraren araberako egokitzapenak egingo genituzke taldera moldatzeko.

Hau da, eskaintzen dugun zerbitzua batez ere haur eta gazteei zuzenduta dago, beraz, badakigu haiekin familiak doazela, baina guk proiektu hau haratago eramán nahi genuen. Horretarako eskoletarako ere zuzenduta egongo da, haurrek modu dinamikoagoan ikasgelan ikasten dutena ikas dezaten.

Bestalde, badakigu desgaitasunen bat duten pertsonekin batera haien hezitzaile eta/edo desgaitasun horien elkarrekin etorriko direla. (badakigu laguntza edo egokitzapen bat behar dutela, beraz, behar diren laguntzak eskeiniko genituzke)

Gogoan izanda gure bezeroak, ezaugarri anitzak kontuan izan behar ditugu.

Hasteko, egoera sozialaren aldetik, bizi garen gizartean zoritxarrez baztertutako jendea dago. Era berean, gure enpresak diskriminazioak pairatzen dituzten pertsonak integratzea eta onartzea nahi du (TEA, TDAH, Down Sindromea, mugimen-desgaitasuna...).

Ahaztu gabe, aintzakotzat hartu behar ditugu 4 urtetik 16 urtera arte dituzten pertsonen ezaugarriak: beren aukera motorrak, kognitiboak, linguistikoak eta sozialak biderkatu eta sustatzen dituzte, eta horiekin guztiekin jolasten dute.

Hizkuntzaren aldetik, kontuan eduki behar dugu gure gizartean dagoen kultur aniztasuna eta horrek dakarren hizkuntza ugartasuna, baina ulertzen dugu Euskal Herrian ditugun hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelera direla, beraz, ekintza hizkuntza hauetan eskeiniko litzateke. Hala ere, beste hizkuntza hitz egiten duten pertsonentzako ingelesean egokituko genuke.